

Zierbenako Emakume eta Gizonentzako III. Plana

2023-2026



Egindako testua

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA..... **Error! Bookmark not defined.**
2. ARAU-ESPARRUA..... **Error! Bookmark not defined.**
3. PRINTZIPIO GIDARIAK..... **Error! Bookmark not defined.**
4. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZEN LABURPENA..... **Error! Bookmark not defined.**
 - 4.1. GOBERNU ONA..... **Error! Bookmark not defined.**
 - 4.2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA **Error! Bookmark not defined.**
 - 4.3. EKONOMIAREN ALDAKETA ETA GIZARTE-ANTOLAMENDUA..... **Error! Bookmark not defined.**
 - 4.4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA **Error! Bookmark not defined.**
5. III. BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETA..... **Error! Bookmark not defined.**
 - 5.1. BULTZATZEKO, KOORDINATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO EGITURAK..... **Error! Bookmark not defined.**
 - 5.1.1. III. BERDINTASUN PLANA BULTZATZEKO ETA KOORDINATZEKO ARDURADUN TEKNIKOA..... **Error! Bookmark not defined.**
 - 5.1.2. III. BERDINTASUN PLANAREN JARRAIPENAREN ARDURADUNAK **Error! Bookmark not defined.**
 - 5.2. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA **Error! Bookmark not defined.**
6. ZIERBENAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA **Error! Bookmark not defined.**
 - 6.1. GOBERNU ONAREN EREMUA..... **Error! Bookmark not defined.**
 - 6.2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEAREN EREMUA **Error! Bookmark not defined.**
 - 6.3. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO **Error! Bookmark not defined.**
 - 6.4. INDARKERIA MATXISTAREN EREMUA..... **Error! Bookmark not defined.**

1. AURKEZPENA

Zierbenako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako prebentzioaren eta jarduketaren arloko jarduera-ildo estrategikoak jasotzen ditu 2023-2026 aldirako.

Zierbenak ibilbide garrantzitsua du berdintasunean, 2001ean, Zierbenak Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Udal Plana egin zuen, eta 2014an, berdintasunaren aldeko udal-politika eguneratzeko konpromisoa berritu zuen, 2015-2019ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana egiteko prozesu parte-hartzaia bultzatuz.

Datozen lau urteetan, lortutako lorpenak sendotu nahi dira, eta aurkitutako erronkei aurre egiteko estrategiak ezarri. III. Plan honek tresna praktikoa, erabilgarria eta malgua izan nahi du, berdintasunezko balioak, jarrerak eta portaerak sustatzen jarraitzeko, indarkeria matxistaren edozein adierazpenetatik aske.

Plangintza berri honekin, Zierbenak berdintasunarekiko konpromisoa berritu du eta bertan parte hartzera animatu ditu herritarrak.

2. ARAU-ESPARRUA

Berdintasun-politiken arau-esparru honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak egotea justifikatzen duten testu garrantzitsuenei egiten die erreferentzia.

NAZIOARTEKO EREMUA

- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda
- Beijingo Emakumeari buruzko Munduko Konferentzia (1995) eta Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma, 2015ean New Yorken berrikusia eta berretsia (Pekin+20)
- Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) (1979, eta Espainiako Estatuak 1983an berretsia)

EUROPAKO EREMUA

- Europako Kontseiluaren Genero Berdintasunerako Estrategia 2020-2025
- Istanbulgo Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzkoa (Erpainiako Estatuak berretsia 2014an)

ESTATUKO EREMUA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako, martxoaren 22ko, 3/2007 Lege Organikoa
- Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko, 1/2004 Lege Organikoa
- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna, 2017ko abenduan onartua

AUTONOMIA-MAILAKO EREMUA

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko, 4/2005 Legea

FORU-EREMUA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana (2021-2024), gaur egun V. Plana egiten ari da
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 ekainaren 20ko Foru Plana

UDAL-MAILAKO EREMUA

- Indarrean dagoen Udal Plana (Zierbenako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2015-2019)

3. PRINTZIPIO GIDARIAK

III. Berdintasun Plan honetako helburu eta neurrien garapena bideratu nahi duten printzipioak martxoaren 3ko 1/2022 Legearen laugarren artikuluan adierazitako printzipioak dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketakoak, non hirugarren artikulua aldatzen den. Gaur egun Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea izena hartzen du.

1. Tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersektionalaren integrazioa
2. Aukera-berdintasuna
3. Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea
4. Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea
5. Sexu eta genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko eskubidea, bai eta sexu eta ugalketa-eskubideak askatasunez garatzeko eskubidea ere, eskubide horiek baliatzeko unean pertsonen erabaki askea bermatuz
6. Genero-ikuspegia txertatzea
7. Ekintza positiboa
8. Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea
9. Ordezkaritza orekatua
10. Lankidetzeta eta koordinazioa eta nazioartekotzea
11. Emakumeen ahalduntzea
12. Gizonen inplikazioa
13. Parte-hartzea
14. Berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea
15. Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea

4. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZEN LABURPENA

Atal honetan, III. Berdintasun Plana egin aurretik emakumeen eta gizonen egoerari buruz egindako diagnostikotik ateratako ondorio nagusiak laburbiltzen dira.

Emaita horiek izan dira Berdintasun Plan honen ekintza-ildoak lehenesteko eta ezartzeko gida.

4.1. GOBERNU ONA

✎ Berdintasun Plana bultzatzeaz arduratzen den egitura baliabide ekonomikoekin indartu behar da, baina, batez ere, langileekin. Ekintzak gauzatzeko, koordinatzeko eta jarraipena eta balorazioa egiteko denbora behar da, baita prestakuntza espezifiko ere, eta egungo arduradunak uste du ezin duela lan hori behar bezala egin. Arloko arduradunak eta beste lankide batzuek berdintasunaren gaiarekiko sentsibilitate handia batdute ere, prestakuntza izateak asko errazten du berdintasuna sustatzea eta genero-ikuspegia txertatzea.

✎ Berdintasunerako egitura indartzeko beste gomendio bat BEDINBIDEAN Foru Zerbitzuaren aldetik edo kanpoko kontratazioen bidez, berdintasunaren alorreko berariazko laguntza eta aholkularitza jasotzea da.

✎ Horregatik, beste puntu garrantzitsu bat berdintasun-gaiei buruzko prestakuntza espezifiko areagotzea da, teknikarientzat eta politikarientzat, batetzen dituzten lanpostuen arabera. Berdintasunerako Euskal Legearen aurreproiektu berriak ezartzen duenez, berdintasunaren arloan oinarritzko gaikuntza eman behar da, progresibo iraunkorra eta nahitaezkoa.

✎ Aurreko Planaren ezagutza maila baxua da. Horregaitik, hori ezagutzera emango duten ekintzak bultzatu behar dira eta, gainera, arloen arteko koordinazio-egiturak erraztu behar dira.

✎ Segregazio horizontaleko maila handia dago udal-eremuen osaeran. Segregazio horizontal horren (edo segregazio bertikala, egongo balitz) ondorioa diren diskriminazio posibleak identifikatzeko ekintzak ezarri behar dira eta neurriak ezarri hori prebenitzeko edo/eta eteteko.

Hizkuntza inklusiboa eta irudi ez-sexistak erabiltzen jarraitu behar da, eta genero-ikuspegia txertatu behar da lan-prozeduretan, genero-arrakalak identifikatu ahal izateko eta desberdintasun hori desagerrarazteko neurriak ezarri ahal izateko. Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea genero-ikuspegia txertatzeko lehen urratsa da, baina datu horien azterketa kuantitatiboa ez ezik, kualitatiboa ere egin behar da genero-arrakala behatzeko. Halaber, analisi kualitatibo hau beste aldagai batzuk kontuan hartuta egitea gomendatzen da, hala nola adina, jatorria eta desgaitasuna, diskriminazio anizkoitzak nola jarduten duen identifikatzeko eta baliabideak berezitasun horietara egokitzeko.

Azterketa bat egitea gomendatzen dugu berdintasun-irizpideak txertatzeko, batez ere biztanleriarekin edo genero-arrakala nabarmenagoa den eremuekin lotura zuzena duten arauetan.

Ez dago erakunde-ordezkaritza paritarioa bermatzen duen maila formaleko irizpiderik.

4.2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- ✎ Martxoaren 8a ospatzeko ekintzak egitea feminismoaren lorpenak aitortzeko eta emakumeen eskubideak eta berdintasuna lortzeko borroka ikuskarazteko modu bat da. Horregaitik, oso garrantzitsua da ekintza hauek egiten jarraitzea, baita ahurrentzako eta gazteentzako autodefentsa feminista ikastaroak egitea.
- ✎ Haur, Gazte eta Berdintasun arloaren jarduerak berak, egiten ari den bezala, emakume-talde espezifiko bat osatzeko gogoia duten emakumeak identifikatzen lagunduko du. Hala ere, prozesu gisa ikastaro edo jarduera bat bultzatzea gomendatzen dugu, emakumeak elkartzea eta, ondoren, elkarte espezifiko bat antolatzea.
- ✎ Zierbenan migratzaile asko ez dagoen arren, emakume migratuen talde garrantzitsua dago. Emakume horien premia nagusiak identifikatzea eta hainbat zerbitzutatik (enplegua, gizarte-zerbitzuak eta berdintasuna) koordinatutako ekintzak ezartzea gomendatzen dugu.
- ✎ Bakardadea eta baliabide ekonomikorik eza dira adineko emakumeei eragiten dieten bi arazo. Bi kasuetan Udala ekintzak ezartzen ari den arren, komenigarria litzateke genero-ikuspegia txertatzea, adineko emakumeen ahalduntze indibiduala eta soziala bultzatzeko.
- ✎ Herriak hainbat elkarte ditu, haien artean kirol klubak, horregaitik komenigarria izango litzateke ekintza positiboak ezartzea, eta emakumeen parte-hartzea sustatzea kirolean, batez ere haur eta gazteengan.

4.3. EKONOMIAREN ERALDAKETA ETA GIZARTE-ANTOLAKETA

- ✎ Emakumeek beren gain hartzen duten zaintza-rola oso errotuta egotea udalerrian. Genero-alde nabarmena dago okupazio-tasari eta errenta pertsonalari eta lanari lotutako datuetan. Horrek, desberdintasun-egoeran eta ahultasun ekonomiko handiagoan kokatzen ditu emakumeak. Haurrekin eta gazteekin zainketen erantzunkidetasunaren gaia lantzen da, baina ez, ordea, helduekin. Gizonak zaintza-lanetan sartzea ezinbestekoa da bidezko banaketa egon dadin. Are gehiago, kontuan hartuta pandemiaren testuinguruaren ondoren areagotu egin dela emakumeen ezinegona zaintza-lanen gainkargatik.
- ✎ ZAINDUZ Programa herritarrengana hurbildu, zaintzaileak diren pertsonak laguntzeaz gain, emakumeak zaintza-roletik aska ditzakeen bide bat izan ere daiteke.
- ✎ Enplegu zerbitzuak hurbileko laguntza ematen du, eta hori aukera bat da beharrianak sexuaren eta beste aldagai batzuen arabera bereizita biltzeko, eta baliabideak egokitu ahal izateko, emakumeen aniztasunaren berezitasunak kontuan hartuta.
- ✎ Udalerriko enpresak berdintasunaren arloan sentsibilizatzea gomendagarria litzateke, sektore maskulinizatueta kide direlako.

4.4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

- ✎ Indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko protokolo bat dago, eta urtero berrikusi beharko litzateke, koordinazioa eta arreta hobetzeko eta biktimen erreparazio-printzipioa integratzeko, elementuak txertatuz. Erreparazio printzipio hau, EMAKUNDE-ren VII. Planean sartuta dagoena, biziraun duten pertsonentzat eta hauerrentzat bideratua dago, horiek baliabide publikoak jaso ditzaten, indarkeria berriro errepikatu ez dadin eta indarkeria matxista oro publikoki gaitzestu dadin.

✉ Noizbait indarkeria sexistaren aurka kanpaina zehatzenbat egin da jaietan, baina gomendagarria litzateke Jai Batzordearekin batera gai hori lantzea, kideak sentzibilizatseko eta kontzientziazteko, eta era horretara, sexismotik eta indarkeria matxistatik aske egondo diren jai-guneak sortuko lirateke.

5. III. BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETA

5.1. BULTZATZEKO, KOORDINATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO EGITURAK

5.1.1. BERDINTASUN PLANA BULTZATZEKO ETA KOORDINATZEKO ARDURADUN TEKNIKOAK

Emakumeen eta gizonen arteko 4/2005 Legeak, 10. Artikuluan ondorengoa adierazten du: *“Foru eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeke dituen eskumenen esparruan, beren egiturak egokitu behar dituzte, non administrazio bakoitzean, gutxienez, erakunde, organo edo administrazio-unitate bat egongo den, zeinek bere jardura-eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak emateko.”*

Zierbenako udalerrian horretaz arduratuko dena Haurrak, Gazteak eta Berdintasun saila izango da, baina zerbitzu horretako pertsona batek ere ez du formakuntza espezifiko (gutxienez 150 ordu, unibertsitateak edo administrazio publikoak egiaztatutakoa) berdintasunerako plangintzaren sustapenerako eta jarraipenerako funtzio nagusi batzuk garatzeko.

Horregaitik, ekintza gisa sartzen da berdintasun teknikari bat kontratatzea.

Arduradun teknikoaren eginkizunak izango dira, besteak beste:


- a) Berdintasunaren arloko programazioa edo plangintza diseinatzea, bai eta dagozkion jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.
- b) Ekintza positiboko neurri espezifikoak diseinatzea eta bultzatzea.
- c) Udalaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txerta dadin bultzatzea, maila eta fase guztietan.
- d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aholkularitza eta lankidetzak ematea Udalaren mendeko arloei eta gainerako erakunde eta organoei.
- h) Egon daitezkeen diskriminazio-egoerak antzematea eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak diseinatzea eta bultzatzea.
- i) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzen duten erakunde publiko eta pribatuekin harremanak eta partaidetza- eta lankidetzak bideak ezartzea.
- j) Udaleko langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-baharrak diagnostikatzea eta kasu bakoitzean eskatzen den prestakuntza mota proposatzea, bai eta hori eskuratzeko irizpide eta lehentasunak ezartzea.
- k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten erakunde, organo eta unitateekin hitz egitea, eta, bereziki, EMAKUNDEekin-Emakumearen Euskal Erakundearekin.

5.1.2. III. BERDINTASUN PLANAREN ARDURADUNAK

Jarraipen Egitura teknikariengatik (Berdintasuna, Haur Gazte eta Familia, Gizarte Ekintza, Kultura, Euskera eta Lana) eta politikariengatik (Alkatetza eta Hau, Gazte eta Familia arduradun politikoa) osatuta dago.


5.2. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO SISTEMA

Urtero egingo den jarraipen hau burutzeko, planteatutako ekintzen lorpen-mailaren balorazioa erraztuko duten prozesu-adierazleak ezartzen dira.



6. ZIERBENAKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

Zierbenako Gizonen eta EMakumeen Berdintasunerako IV. Planak, EMAKUNDEren VII. Berdintasun Plana erreferentziatzat hartuta, 4 esku-hartze eremu ditu, 18 helburu espezifiko eta 60 ekintza, datozen lau urteetan garatuko direnak (2022tik 2025era).



Gainera, plangintzak ondorengo informazioa du:

- ➡ Ekintzak inplementatzeaz **arduratzen diren** eta laguntzen duten arloak.
- ➡ Ezarritako kronograma.
- ➡ Helburuak lortzeko diseinatutako ekintzen garapen-maila ezagutzeko **prozesu-adierazleak**.
- ➡ **Emaiatzen adierazleak** emaitzak gauzatzearekin, zer neurritan lortu diren emaitzak jakiteko.

6.1. GOBERNU ONAREN EREMUA

Gobernu Onaren ardatzak udal-politiketan genero-ikuspegia txertatzeko konpromiso politiko eta teknikoari egiten dio erreferentzia, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak eskatzen duen bezala.

Gobernu Onaren Eremuak 8 heburu eta 23 ekintza ditu eta 4 programa dituzte, EMAKUNDEren VII. Berdintasun Planean ezarritakoak.

1. PROGRAMA . KONPROMISO POLITIKOA

- 1.1. Helburua. Berdintasunaren arloa indartzea, III. Berdintasun Planaren ezarpena, koordinazioa eta jarraipena bermatzeko
- 1.2. Helburua. Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako prebentzioaren eta jarduketaren arloko jardunaren berri ematea udaleko langileei zein herritarrei

2. PROGRAMA. BERDINTASUNERAKO SENTSIBILIZAZIOA ETA GAIKUNTZA

- 1. 3. Helburua. Politikariak berdintasunaren arloan trebatzea
- 1.4. Helburua. Teknikariak pixkanaka gaitzea genero-ikuspegia txertatzeko moduari buruz

3. PROGRAMA. Genero-ikuspegia LANEKO PROZEDURETAN eta KOMUNIKAZIOAN

- 1.5. Helburua. Datuak biltzea, aztertzea eta estatistikak egitea, genero-ikuspegia txertatuta
- 1.6. Helburua. Kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak sartzea
- 1.7. Helburua. Barneko eta kanpoko komunikazio berdinzalea, ez-sexista eta aniztasuna erakusten duena bultzatzea

4. PROGRAMA. PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

- 1.8. Helburua. Ordezkaritza paritarioa bultzatzea udal-ordezkaritzako guneetan

1.1. Helburua. Berdintasunaren arloa indartzea, III. Berdintasun Planaren ezarpena, koordinazioa eta jarraipena bermatzeko

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.1.1. Aurrekontu espezifiko bat esleitzea ezarritako ekintzen inplementazioa bermatzeko	ALKATETZA SAIL GUZTIAK				
1.1.2. Berdintasun teknikari bat berariaz kontratatzea	ALKATETZA LANGILERIA				
1.1.3. Berdintasunerako eta jarraipenerako III. Planaren plan operatiboak urtero egitea	BERDINTASUNA				
1.1.4. III. Berdintasun Planaren jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, inplikaturako sailek koordinatuta parte har dezaten	BERDINTASUNA SAIL GUZTIAK				
1.1.5. BERDINEAN Foru zertbitzuaren aholkularitza jasotzea	BERDINTASUNA				

PROZESUAREN ETA EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Berdintasunera esleitutako aurrekontuaren zenbatekoa
- Urtero gehitutako aurrekontuaren %
- EMAKUNDERi finantzaketa lortzeko eskatutako diru-laguntzen kopurua
- Berdintasun-zerbitzuak berdintasun-teknikari bat du lanaldi partzialean
- BERDINSAREA-ren bilera kopurua

1.2. Helburua. Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako prebentzioaren eta jarduketaren arloko jardunaren berri ematea udaleko langileei (barnekoak eta kanpokoak) eta herritarrei.

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.2.1. Udalaren webgunean sartzeta III. Berdintasun Plana eta urtero aurreikusitako ekintzan	BERDINTASUNA				
1.2.2. Udaleko langileen artean (barnekoak eta kanpokoak) aurreikusitako ekintzak zabaldu	BERDINTASUNA				
1.2.3. Aurreikusitako ekintzak eta horiek berdintasunarekin eta indarkeria matxistaren prebentzioarekin duten harremana Udalaren webgunean sartzeta	BERDINTASUNA				
1.2.4. Berdintasunaren arloko estrategia eta ekintza nagusiak laburbiltzen dituen dokumentu bat egitea, herritarren artean zabaltzeko	BERDINTASUNA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- III. Plana WEBGUNEAN sartzeta
- Berri kopurua WEBGUNEAN
- Udaleko langileei egindako hedapen kopurua eta Berdintasun Plana ezagutzen duten langileen ehunekoa
- III. Planaren laburpena duten liburuxken kopurua, herritarren artean banatuta

- III. Plana ezagutzen duten Zierbenako biztanleen %

1.3. Helburua. Politikariak berdintasunaren arloan trebatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	CRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.3.1.. Politikarien prestakuntzarako interesgarriak diren gai nagusien inguruko beharrak biltzea eta urtero prestakuntza-programazioa ezartzea	ALKATETZA BERDINTASUNA				
1.3.2. Udalabatza politiko osoari urtero, berdintasunari buruzko formakuntza ematea, jasotako beharretan oinarrituta	ALKATETZA BERDINTASUNA				
1.3.3. Jasotako prestakuntzaren erabilgarritasun-mailari eta inpaktuari buruzko ebaluazioa egitea	ALKATETZA BERDINTASUNA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERZLEAK:

- Identifikatutako prestakuntza-beharren kopurua
- Formakuntzan parte hartuko duten pertsonen (E eta G) eta orden kopurua
- Trebakuntzek sustatutako aldaketen kopurua eta mota

1.4. Helburua. Teknikariak pixkanaka gaitzea genero-ikuspegia txertatzeko moduari buruz

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.4.1. Teknikarien prestakuntzareko interesgarriak diren gai nagusien inguruko beharrak biltzea	BERDINTASUNA LANGILERIA				
1.4.2. Berariazko trebakuntza eta prestakuntza praktikoa ematea, zerbitzu bakoitzean genero-ikuspegia errazago integratzeko	BERDINTASUNA LANGILERIA				
1.4.3. Jasotako prestakuntzaren erabilgarritasun-mailari eta inpaktuari buruzko ebaluazioa egitea	BERDINTASUNA LANGILERIA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Identifikatutako prestakuntza-beharren kopurua
- Formakuntzan parte hartuko duten pertsonen (E eta G) eta orden kopurua
- Trebakuntzek sustatutako aldaketen kopurua eta mota

1.5. Helburua. Datuak biltzea, aztertzea eta estatistikak egitea, genero-ikuspegia txertatuta

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.5.1. Zerbitzuetan, datuak sexuaren eta intereseko beste aldagai batzuen arabera (adibidez, adina, jatorria) bereizita biltzea	SAIL GUZTIAK				
1.5.2. Urteko memorietan genero-arrakalari eta beste aldagai batzuei buruzko informazio espezifikoak sartzea	SAIL GUZTIAK				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Datuak sexuaren eta beste aldagai batzuen arabera bereizita biltzen dituzten urteko memorien eta/edo estatistiken, azterlanen eta abarren kopurua eta mota

- Datuak sexuaren eta beste aldagai batzuen arabera bereizita biltzen dituzten sailen %

1.6. Helburua. Kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak sartzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.6.1. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen publikoetan berdintasun-klausulak sartzea , EMAKUNDEren gomendioen arabera ¹	ALKATETZA SAIL GUZTIAK				
1.6.2. Bultzatuko diren udal-arauetan genero-eraginari buruzko aurretiazko txostenak egitea ²	ALKATETZA SAIL GUZTIAK				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Berdintasun-klausulak txartatzen dituzten kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen kopurua eta ehunekoa
- Genero-eraginari buruzko aurretiko txosten kopurua

1.7. Helburua. Barneko eta kanpoko komunikazio berdintzalea, ez-sexista eta aniztasuna erakusten duena bultzatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.7.1. Udaleko langileei materialak ematea idatzizko nahiz ahozko hizkuntza inklusiboa erabiltzeko eta irudi ez-sexistak eta arrazistak erabiltzeko, baldin eta irudi horiek aniztasuna erakusten badute eta genero-rolak eta -estereotipoak gainditzen badituzte.	BERDINTASUNA				
1.7.2. Hizkuntza inklusiboko irizpideak txertatzea eta irudi ez-sexistak eta arrazistak erabiltzea, aniztasuna erakusteko eta genero-rolak eta -estereotipoak hausteko albisteetan, argitalpenetan, publizitatean eta abarretan.	SAIL GUZTIAK				

PORZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Hizkuntza eta irudi ez-sexistak eta arrazistak erabiltzeko materialak jasotzen dituzten eta aniztasuna erakusten duten Udaleko langileen %
- Sartutako irizpideen kopurua

1.8. Helburua. Ordezkaritza paritarioa bultzatzea udal-ordezkaritzako guneeetan

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	CRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
1.8. 1. Epaimahaien osaeran (kirol-lehiaketak, kultura-lehiaketak, etab.), herritarrek parte hartzeko espazioetan eta ordezkaritza publiko instituzionaleko espazioetan ordezkaritza orekatua izateko irizpideak sartzea.	ALKATETZA SAIL GUZTIAK				

¹ <https://www.emakunde.euskadi.eus/politicas-publicas/-/informacion/clausulas-igualdad/>

² <https://www.emakunde.euskadi.eus/politicas-publicas/-/informacion/evaluacion-impacto/>

1.8.2. Espazioen funtzionamendua egokitzea, emakumeen parte-hartzea errazteko, emakumeek adierazitako zailtasun espezifikoak kontuan hartuta	ALKATETZA SAIL GUZTIAK				
--	---------------------------	--	--	--	--

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Parekideak diren epaimahaien %
- Ordezkaritza orekatua errazteko ezarritako ekintza positiboen kopurua

6.2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEAREN EREMUA

Emakumeen ahalduntzeak, alde batetik, emakumeen autoestimua eta auto-zaintza garatzea bilatzen du, genero-kontzientzia sortuz, eta bestetik, espazio publikoan emakumeen parte-hartzea areagotzea du helburu, batez ere emakumeen ordezkaritza txikiagoa den eremuetan eta emakumeen antolaketa ere sustatzen du, udalerriko bizitza sozialean eta politikoan duten eragina handitzeko.

Norbanakoaren nahiz taldearen kontzientzia kritikoa sortzeko funtsezko elementua da emakumeen ekarpena ikusaraztea eta aitortzea, eta nola ez, feminismoak lortutako lorpenak aitortzea. Emakumeen parte-ahrtzea eremu publikoan.

Eremu horrek 4 helburu eta 17 ekintza ditu, eta EMAKUNDEren VII. Berdintasun Planean ezarritako 2 programak ditu esparru.

5 . PROGRAMA. BEGIRADA FEMINISTA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZEN INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA

- 2.1. Helburua. Emakumeen ahalduntze indibiduala sustatzea, haien aniztasuna kontuan hartuta, autoestimua eta autonomia handituz.
- 2.2. Helburua. Feminismoak eta emakumeek historiari, kulturari, ekonomiari eta, oro har, gizarteari egindako ekarpenaren aitortzea sustatzea.

6. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA

- 2.3. Helburua. Kulturaren eta kirolaren esparruan emakumeen parte-hartzea eta protagonismoa sustatzea, haien aniztasuna kontuan hartuta.
- 2.4. Helburua. Zierbenako emakume-talde baten prestakuntza bultzatzea, berdintasuna sustatzeko, indarkeria matxista prebenitzeko eta feminismoa aitortzeko.

2.1. Helburua. Promover el empoderamiento individual de las mujeres, atendiendo a su diversidad, mediante el aumento de la autoestima y su autonomía

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
2.1.1. Adin desberdinetako emakumeentzako ikastaro feministen urteko programazioa ezartzea (osasunari eta sexualitateari buruzko ikastaroak eta autodefentsa feminista neska gazteentzat)	BERDINTASUNA				
2.1.2. Emakume migratuek osasunaren sustapenaren eta ahalduntze indibidualaren arloan dituzten premia espezifikoak identifikatzea, ikastaroetan parte har dezaten bultzatzeko	BERDINTASUNA EISE GIZARTE EKINTZA LANA				
2.1.3. Dibertsitate funtzionala duten emakumeen behar espezifikoak identifikatzea, beren autonomia eta autoestimua hobetzeko baliabideak egokitzeko	BERDINTASUNA EISE GIZARTE EKINTZA				
2.1.4. Adineko emakumeen ahalduntzea sustatzeko hitzaldi bat ematea urtero	BERDINTASUNA GIZARTE EKINTZA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Urtero egindako kurtso kopurua
- Parte hartu duten emakumeen kopurua eta horien aniztasun-maila
- Emakume migratuekin eta desgaitasuna dutenekin lotuta identifikatutako beharren kopurua
- Premia horiek asetzeko egokitutako ekintzen edo/eta baliabideen kopurua
- Emakumeen ahalduntzea sustatzeko egindako hitzaldi kopurua
- Parte hartu duten emakume nagusien kopurua
- Emakumeek ikastaroekin eta/edo hitzaldiekin duten gogobetetze-maila

2.2. Helburua. Feminismoak eta emakumeek historiari, kulturari, ekonomiari eta, oro har, gizarteari egindako ekarpenaren aitortpena sustatzea.

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
2.2.1. Zierbenako emakumeen omenez ekitaldia egitea martxoaren 8an	BERDINTASUNA				
2.2.2. Martxoaren 8an irakurketa instituzionala egitea, udal gisa, emakumeen borroka aitortzeko	ALKATETZA BERDINTASUNA				
2.2.3. Muskizeko emakume feministekin (MalvaLoka) eta Batukadarekin jardueraren bat egitea	BERDINTASUNA				
2.2.4. Izaera feminista duten liburuak liburutegian berariaz ikusgai jartzea	KULTURA BERDINTASUNA				
2.2.5. Antzezlanak, erakusketak edo beste kultura- eta jolas-ekitaldi batzuk hautatzean irizpideak txertatzea, emakumeek kultura-sortzaile gisa protagonismoa izan dezaten.	KULTUR ETXEA BERDINTASUNA				
2.2.6. Berariazko jarduera bat egitea Zierbenako emakumeek espazio espezifikoetan egindako ekarpena aitortzeko egindako bideoa zabaltzeko: erretiratuen kluba, EISEko tailerrak, etab.	KULTUR ETXEA BERDINTASUNA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Martxoaren 8aren inguruan egindako ekintza kopurua eta motak
- Parte-hartu duten pertsona kopurua (E eta G kopurua eta dibertsitate gradua)
- Liburutegian gai feministak dituzten liburu kopurua
- Emakumeen protagonismoa erakusten duten kultura-lan kopurua
- Bideo zabaltzeko egindako ekintza kopurua eta mota
- Ekintzetan parte-hartu duten pertsona kopurua (E eta G kopurua eta dibertsitate maila)

2.3. Helburua. Kulturaren eta kirolaren esparruan emakumeen parte-hartzea eta protagonismoa sustatzea, haien aniztasuna kontuan hartuta.

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
2.3.1. Urtero (jardunaldiak, hitzaldiak, aintzatespen publikoa, etab.) Zierbenako neska eta mutil kirolariak aintzatesteko eta ikusarazteko ekintza bat egitea	KIROLA BERDINTASUNA				
2.3.2. Zierbenako kirol-klubek emakumeen, gazteen eta nesken parte-hartzea hobetzeko eta/edo haien onarpen soziala handitzeko ekintza espezifikoak egin ditzaten laguntzea	KIROLA BERDINTASUNA				
2.3.3. Emakume migratuen eta dibertsitate funtzionala dutenen beharrak identifikatzea aisialdiaz eta kulturaz gozatzeari dagokionez, kultura- eta aisialdi-jardueretan parte hartzea sustatzen duten baliabideak egokitzeko	BERDINTASUNA KULTUR ETXEA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Egindako ekintza kopurua eta haietan parte-hartutako pertsonen kopurua (E eta G kopurua eta dibertsitate maila)
- Kirol-klubetan egindako ekintza positiboen kopurua
- Identifikatutako premien kopurua eta mota
- Emakume migratuen artean kultura- eta aisialdi-jarduerak sustatzeko egokitutako/sortutako baliabideen kopurua

2.4. Helburua . Zierbenako emakume-talde baten prestakuntza bultzatzea, berdintasuna sustatzeko, indarkeria matxista prebenitzeko eta feminismoa aitortzeko.

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
2.4.1. Prozesuaren araberako ikastaro bat egitea (hileroko topaketa bat), non emakumeak prestatzaile feminista batengatik lagunduta egongo diren.	BERDINTASUNA				
2.4.2. Ahalduntze feministako ikastaroetara hurbiltzen diren emakumeen interesak identifikatzea	BERDINTASUNA				
2.4.3. Emakume-taldeari aholkularitza teknikoa eskaintzea elkarte gisa osatzeko	BERDINTASUNA				
2.4.4. Tokiko talde feministen (MalvaLoka) eta ikastaroa egiten duten emakumeen arteko topaketak antolatzea	BERDINTASUNA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Urtero ikastaroan parte hartu duten emakumeen kopurua (aniztasun-maila)
- Aurkitutako interesen kopurua eta mota

- Emakumeen asoziazionismoa errazteko egindako ekintzen kopurua eta mota
- Topaketa feministen kopurua eta parte hartu duten emakumeen kopurua (anistasun-maila)
- Aldian behin interés komun baten inguruan biltzen den emakume-talde bat dago

6.3. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Esparru honek ekonomiaren eraldaketa eta gizarte-antolamenduaren eraldaketa lotzen ditu, emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatuko duen lan duina izatearekin lotutako eskubideak eta erakundeen, komunitatearen eta familien artean birbanatutako zaintza-hornidurarekin lotutako eskubideak bermatu ahal izateko.

Beste gizarte-eredu bat bultzatzeko, beharrezkoa da genero-rolak eta -estereotipoak urratzea eta berdintasuna eta zaintzak gizarte-balio gisa aitortzea.

Eremu honek 3 helburu eta 10 ekintza ditu, eta EMAKUNDEren VII. Berdintasun Planean ezarritako 3 programak ditu esparru gisa.

7. PROGRAMA. BERDINTASUNA GIZARTE-BALIO GISA AITOR DADIN BULTZATZEA

- 3.1. Helburua. Berdintasuna gizarte-balio gisa aitor dadin bultzatzea

8. PROGRAMA. EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA

- 3.2. Helburua. Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea, batez ere gizarte-kalteberatasun handiena dutenena

9. PROGRAMA. ZAINKETEN AZTERKETA

- 3.3. Helburua. Zaintza laguntzeko zerbitzuak mantentzea eta hobetzea, genero-ikuspegia integratuz

3.1. Helburua. Berdintasuna gizarte-balio gisa aitor dadin bultzatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
3.1.1. Haurrei zuzendutako tailerrak egitea, genero-rolen eta -estereotipoen urrapena sustatuz	EISE				
3.2.2. Kirol-elkarte eta -klubekin ikastaroak egitea, berdintasun-neurriak sartzeko, genero-rol eta -estereotipoak urratzeko eta emakumeek elkarleen erabaki- eta ordezkaritza-guneetan parte har dezaten bultzatzeko.	BERDINTASUNA KIROLA KULTURA GIZARTE EKINTZA				
3.2.3. Zierbenako enpresak sentsibilizatzea berdintasun-planak ezartzeko beharraz, eta berdintasunaren arloko informazioa eta jardunbide egokiak zabaltzea	LANA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Genero-rolak eta -estereotipoak urratzea sustatzen duten tailerren kopurua eta ehunekoa
- Elkarrekin eta klubei zuzendutako ikastaroen kopurua eta mota
- Parte-hartzaile kopurua kurtso horietan (E eta G kopurua eta dibertsitate maila)
- Kurtsoetan parte-hartzen duten pertsonen gogobetetze maila
- Enpresak sentsibilizatzeko egindako ekintzen kopurua
- Enpresetan berdintasunaren alde egindako ekintzen kopurua

3.2. Helburua. Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea, batez ere gizarte-kalteberatasun handiena dutenena

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
3.2.1. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planetan emakumeen kontratazioa errazteko neurri positiboak hartzea	LANA				
3.2.2. Enplegu Zerbitzutik zuzenean kudeatzen diren prestakuntzetan genero-ikuspegia txertatzea	LANA				
3.2.3. Enplegua aktiboki bilatzeko ikastaro feminista bat egitea, berariaz emakumeei zuzendua	LANA				
3.2.4. Emakumeen beharrak identifikatzea, haien aniztasuna kontuan hartuta, eta baliabideak egokitzea	LANA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Hartutako neurri positiboen kopurua eta mota
- Prestakuntzetan sartutako genero-ikuspegia duten edukien kopurua eta mota
- Ikastaroan parte hartu duten emakumeen kopurua (aniztasun-maila) eta haien gogobetetze-maila
- Identifikatutako premien kopurua eta mota
- Emakumeen behar espezifikoak erantzuteko egokitutako/sortutako baliabideen kopurua eta mota aniztasunaren arabera

3.3. Helburua. Zaintzari laguntzeko zerbitzuak mantentzea eta hobetzea, genero-ikuspedia txertatuz

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
3.3.1. ZAINDUZ programa ikusaraztea eta ezagutaraztea	GIZARTE ZERBITZUAK				
3.3.2. Adinekoen eta/edo mendeko pertsonen zaintzaileen autozaintza, aisia eta atsedena sustatzen duten jarduerak egitea	GIZARTE ZERBITZUAK				
3.3.3. Haurrei zuzendutako tailerrak egitea, nork bere burua zaintzea eta beste pertsona batzuk zaintzea sustatuz	BERDINTASUNA EISE				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- ZAINDUZ ikusarazteko egindako ekintzen kopurua
- Adinekoen eta/edo mendeko pertsonen zaintzaileen autozaintza, aisia eta atsedena sustatzen duten jardueren kopurua eta mota
- Jarduera horietan parte hartu dutenen kopurua (E eta G kopurua eta aniztasun-maila)
- Nork bere burua zaintzea sustatzeko haurrei zuzendutako tailerren kopurua
- Tailer horietan parte hartu dutenen kopurua (E eta G kopurua, aniztasun-maila)

6.4. INDARKERIA MATXISTAREN EREMUA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, eta, horregatik, beharrezkoa da haren aurka jardutea, eskubideak bermatzeko ikuspegitik, horregatik, biktimen erreparazioaren printzipioa integratzeko beharra, ez soilik materiala (indarkeriak emakumeen eta haien seme-alaben bizitzan dituen inpaktuak murriztuz), baita soziala ere, indarkeria matxistaren edozein adierazpen salatuz eta ukatuz. Ildo horretan, indarkeria matxistaren izaera estrukturalari buruzko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-lana funtsezkoa da indarkeria matxistaren prebentzio-lanerako.

Eremu horrek 3 helburu eta 8 ekintza ditu, eta EMAKUNDEren VII. Berdintasun Planean ezarritako 2 programen esparrua du.

10. PROGRAMA. SENSIBILIZAZIOA, KONTZIENTZIAZIOA ETA PREBENTZIOA

- 4.1. Helburua. Indarkeria matxistaren adierazpenei eta sexualitate libre, askotariko eta berdintasuneko baten bizipenari aurre egingo dieten portaerak bultzatzea.

11. PROGRAMA. GELDITZEA, AHALDUNTZEKO ARRETA INTEGRALA ETA KALTEA KONPONTZEA

- 4.2. Helburua. Udal-koordinazioa hobetzea indarkeria matxistako kasuen eta haien arretaren aurrean, ahalduntzeko begirada integratuz eta indarkeriak emakumeen eta hurbileko pertsonen bizitzetan dituen inpaktuak konponduz.
- 4.3. Helburua. Udalaren jardunean erreparazio sozialaren printzipioa bultzatzea.
- 4.4. Helburua. Emakumeen segurtasun-sentsazioa handitzea, haien aniztasuna kontuan hartuta.

4.1. Helburua. Indarkeria matxistaren adierazpenei eta sexualitate libre, askotariko eta berdintasunezko baten bizipenari aurre egingo dieten portaerak bultzatzea.

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
4.1.1. Autodefentsa feministako tailerrak egitea neskentzat	BERDINTASUNA				
4.1.2. Eraso sexistarik eta LGTBIfobikorik gabeko jaiak izateko kanpainak egitea, jai-batzordeekin koordinatuta	BERDINTASUNA KULTURA				
4.1.3. Jai-batzordeekin bilerak egitea, berdintasunezko jaiak eta eraso sexistarik eta LGTBIfobikorik gabeko jaiak bultzatzeko tresnak emateko, sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko	BERDINTASUNA KULTURA				
4.1.4. Jaietako eraso sexistak eta LGTBIfobikoak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko tokiko protokoloa egitea, modu parte-hartzailean	ALKATETZA BERDINTASUNA KULTURA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Autodefentsa feministen tailerren kopurua eta parte hartu dutenen kopurua
- Parte-hartzaileen gogobetetze-maila
- Jai-batzordeekin izandako bilera kopurua eta parte-hartzaile kopurua (E eta G)
- Jai-batzordeekin egindako ekintza kopurua
- Jaietan egindako aldaketen kopurua eta mota
- Protokoloa egiten ari diren parte-hartzaileen kopurua eta sartutako neurrien kopurua

4.2. Helburua. Udal-koordinazioa hobetzea indarkeria matxistako kasuen eta haien arretaren aurrean, ahalduztzeko begirada integratuz eta indarkeriak emakumeen, haien seme-alaben eta ingurune hurbileko pertsonen bizitzetan dituen inaktuak konponduz

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
4.2.1. Koordinazio-bilerak egitea indarkeria matxistako kasuen aurrean jarduteko protokoloan parte hartzen duten eragileen artean	BERDINTASUNA GIZARTE ZERBITZUAK				
4.2.2. Emakumeen seme-alabei eta haien mendeko beste pertsona batzuei eragiten dieten indarkeria-modu espezifikoak identifikatzea, baliabideak premia horietara egokitzeko	BERDINTASUNA GIZARTE ZERBITZUAK				
4.2.3. Urtero koordinazio-bilera bat egitea zerbitzuen artean, ahalduztze-ekintzak ezartzeko, indarkeria matxistak emakumeengan eta haien seme-alabengan duen eragina murrizteko	BERDINTASUNA SAIL GUZTIAK				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Koordinazio-bileren kopurua eta parte hartu duten sailen kopurua
- Identifikatutako beharren kopurua eta horietara egokitutako baliabideen kopurua
- Koordinazio-protokoloan sartutako hobekuntzen kopurua

4.3. Helburua. Udalaren jardunean erreparazio sozialaren printzipioa bultzatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
4.3.1. Azaroaren 25ean adierazpen instituzional bat egitea, indarkeria matxistaren edozein adierazpenen gaitzespen irmoa erakusteko	ALKATETZA				
4.3.2. Indarkeria matxistaren aurkako Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Martxan parte hartzea bultzatzea	BERDINTASUNA				
4.3.3. Udalerrian indarkeria matxistako egoeraren bat gertatuz gero, salaketa publikoa egitea	ALKATETZA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Azaroaren 25aren inguruan egindako ekintza kopurua
- Parte hartzen duten pertsona kopurua (E eta G eta aniztasun-maila)
- Martxan parte hartzen duten emakume kopurua (aniztasun-maila)
- Salaketa publiko kopurua eta mota

4.4. Helburua. Emakumeen segurtasun-sentsazioa handitzea, haien aniztasuna kontuan hartuta

EKINTZAK	ARDURADUNAK ELKARLANEAN DAUDE	KRONOGRAMA			
		2023	2024	2025	2026
4.4.1. Adin eta jatorri desberdinetako emakumeekin parte hartzeko prozesua bultzatzea, segurtasunik ezaren pertzepzioa baldintzatzen duten elementuak ikuspegi feministarekin identifikatzeko eta aldaketa-proposamenak sortzeko	HIRIGINTZA BERDINTASUNA				
4.4.2. Proposatutako aldaketak espazio publikoan txertatzea	HIRIGINTZA				

PROZESUAREN ETA EMAITZEN ADIERAZLEAK:

- Prozesuan parte hartu duten pertsona kopurua (aniztasun-maila)
- Parte hartu duten emakumeek gogobetetze-maila
- Espazio publikoan egindako aldaketen kopurua